

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BALMASEDAKO UDALAREN 2007-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Balmasedako Udalaren 2007ko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute.

Udalaren Kontu Orokorraren fiskalizazio txostenak legezkontasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, sarrera, langileria, diru-laguntza eta administrazioko kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezkontasunaren atalean, HKEEk udal jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta indarreko araudia zuzentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude zehaztuak.

Langileriari dagokionez, HKEEk jakinarazi du Udalak ez dituela bete berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak 31 langileren kontratazioan, 2007ko ekitaldian iraupen mugatuko kontratuekin zerbitzu eman dutenak.

Kontratazioaren atalean dio urratu egin dela Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Testu Bateratua hainbat kasutan eta adierazgarriena kontratu aldaketei dagokiena da; honela, bada: zerbitzu kontratu batean eta bost obra kontratutan aldaketak esleipen zenbatekoaren gainean % 26 eta % 79koak izan dira eta horrek lehia printzipioak urratzen ditu kontratuaren bolumen ekonomikoa desitxuratzen duelako; berebat, aurreko kontratuetatik 3tan ez dira dagozkion aldaketa espedienteak bideratu; eta urbanizazio lanei dagokienez horietako batean egin den aldaketa, gastua gauzatu ondoren onetsi da.

Kontu Orokorrari dagokionez, Epaitegiak aldeko iritzia eman du horren aurkezpen eta edukiari dagokionez eta nolana ere, kontabilitateko hainbat doiketak eragindako akats bat azaleratu du, Udalaren Diruzaintza Geldikina 431 mila eurotan murrizten duena.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitate, langileria eta kontratazio arloetan.

Azkenik, Udalaren finantza egoerari dagokionez jakinarazten da 2005-2007 aldian aurrezki gordin positiboa izan duela eta diruzaintza geldikinaren bilakaera ere positiboa izan dela; halaber, zorpetze maila txikiaren ondorioz, aztergai izan den aldian izan dituen inbertsio zifrei bere horretan eusteko ahalmena duela, nahiz berriz zorpetze bidea erabili beharko duen Udal Finantzaketakako Foru Fondotik eratorritako sarreraren gainean espero den ondorio negatiboa konpentsatzeko.